BILBOKO UDALA AYUNTAMIENTO DE BILBAO | **Prentsa Kabinetea** Gabinete de Prensa | Erkoreka Plaza, 1 48007 Bilbao
Tel. 94 420 52 61 / 94 420 52 94 / 94 420 35 19 / 94 420 59 93 / 94 420 30 93 | Fax: 94 420 52 16 | prensa@alcaldia.bilbao.eus | www.bilbao.eus

BILBOKO UDAL MUSIKA BANDAK "IBILBIDE" BERRIAK ZABALDUKO DITU 2026-2027 DENBORALDIAN

- **"Ibilbideak" izenburupean, Bilboko Udal Musika Bandak 14 kontzertuko denboraldia aurkeztu du. 2027ko apirilaren 25era arte luzatuko den programazioak hainbat musika-unibertso, estilo eta garai zeharkatuko ditu, zuzendari gonbidatu ugariren eskutik.**
- **Denboraldian zehar, Banda Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbao, Euskalduna Jauregia, Arriaga Antzokia eta Juan Crisóstomo de Arriaga Kontserbatorioa bezalako agertokietan arituko da. Horrez gain, Musika-Música jaialdian eta Orkestra Zuzendaritzako XI. Topaketetan ere parte hartuko du.**
- **Abenduaren 20ra arte, Bandak zortzi kontzertu eskainiko ditu. Proposamenek herri-kantuetatik Pucciniren operaraino eta errepertorio sinfonikotik bandarako obra handietaraino eramango dute publikoa; lehen zikloa Leioako San Juan Bautista Abesbatzarekin eta Nerea González sopranoarekin batera eskainiko den Gabonetako kontzertu berezi batekin amaituko da.**

(Bilbao, 2026ko urriaren 13an).- **Bilboko Udal Musika Bandak** "Ibilbideak" izenburupean aurkeztu du **2026-2027 denboraldia**. Irailean hasi eta **2027ko apirilaren 25era arte** luzatuko den programazioak 14 kontzertu bilduko ditu, eta hiribilduko kultura-agertoki nagusietako batzuk zeharkatuko ditu.

"Bide guztiek Erromara daramate", dio esaera ezagunak. Helmuga berera iristeko modu, erabaki eta ibilbide ugari daudela adierazten du esamolde horrek. Ideia hori da, hain zuzen ere, Bilboko Udal Musika Bandaren denboraldi berria egituratzen duen "Ibilbideak" kontzeptuaren abiapuntua.

Hilabete hauetan zehar, musika-elkarteak **askotariko musika-bideak egingo ditu, ibilbide eta sentiberatasun desberdineko zuzendarien eskutik**. Garai, estilo, egile eta musika ulertzeko modu askoren artean bidaiatuko du Bandak, XXI. mendeko musika-banda batek eskaintzen dituen aukera soinudun eta adierazkorren aniztasuna erakusteko.

Denboraldian, besteak beste, Iñaki Urkizu eta José R. Pascual-Vilaplana zuzendari gonbidatu nagusia izango dira Bandaren buru, baita honako zuzendari gonbidatu hauek ere: Claudia Carballo González, Martín Jorge, Beatriz Fernández Aucejo, Xavier Puig Ortiz, Pedro Bartolomé Arce, Unai Urrecho Zubillaga, Lucía Marín eta Manuel Busto Algarín.

Programazioa apirilera arte garatuko da **Euskalduna Jauregian, Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaon, Arriaga Antzokian eta Juan Crisóstomo de Arriaga Kontserbatorioko Auditorioan**. Egutegiak, gainera, beste bi hitzordu nabarmen izango

ditu: urtarrilean egingo diren **Orkestra Zuzendaritzako XI. Topaketak** eta Bandak martxoan **Musika-Música** jaialdian egingo duen emanaldia.

Denboraldiaren azken geltokia apirilaren 25ean izango da, Euskalduna Jauregiko Auditoriumean egingo den azken kontzertuarekin.

DENBORALDIKO LEHEN IBILBIDEAK

Denboraldia **irailaren 11n** hasi zen, Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaoko Kulturen Atarian, **Iñaki Urkizu** Bandaren buru zela. Agertoki berean egin zen egutegiko bigarren hitzordua ere, **irailaren 25ean**, **Claudia Carballo Gonzálezen** zuzendaritzapean. Carballo González Bilbao Musikaren Orkestra Zuzendaritzako X. Topaketen barruan egindako 2026ko Zuzendaritza Lehiaketaren irabazlea izan zen.

Lehen emanaldi horien ondoren, udazkenean hiriko hainbat agertokitan zehar jarraituko du programazioak, eta askotariko bide musikalak proposatuko dizkio publikoari, hala nola memoria kolektiboan errotutako abestiak, opera, errepertorio sinfoniko handia edo bandarako literaturako obra esanguratsuenetako batzuk.

Urriaren 18an, igandean, 12:00etan, Euskalduna Jauregiko Auditoriumean denboraldiko lehen hitzordua izango da. **Iñaki Urkizu**k gidatuko du Banda, eta **Bilboko Koral Elkarteko Abesbatzak** ere parte hartuko du kontzertuan.

Programak jatorri eta estilo askotako musikak bilduko ditu, besteak beste: Sebastián Iradierren “La Paloma”, Xabier Leteren “Xalbadorren heriotzean”, Noel Estradaren “En mi viejo San Juan”, Harold Arlenen “Over the Rainbow” eta Dino Ramosen “La nave del olvido”. Publikoarentzat ezagunak diren doinuez osatutako errepertorioak musikak mugak gainditzeko eta oroitzapenak zein emozioak lotzeko duen gaitasuna erakutsiko du.

PUCCINITIK MUNDU BERRIETARA

Hurrengo geldialdia Arriaga Antzokia izango da, **urriaren 29an**, ostegunean, 19:30ean. Oraingoan, Martín Jorge, Montevideoko Banda Sinfonikoko zuzendaria, jarriko da taldearen buru.

Kontzertuak Giacomo Pucciniren unibertsoan murgiltzeko aukera eskainiko du. Operaren historiako egile handienetakoaren obra ezagunenetako hainbat pasarte joko ditu Bandak, besteak beste “La Bohème”, “Turandot” eta “Gianni Schicchi” operetakoak. Konpositore italiarraren melodia ezagunenetako batzuk banda-formatuaren aberastasun tinbrikora ekarriko ditu emanaldiak.

Azaroaren 6an, ostiralean, 18:30ean, ibilbideak Juan Crisóstomo de Arriaga Kontserbatorioko Auditorioan jarraituko du, **Beatriz Fernández Aucejo** zuzendari valentziarraren gidaritzapean.

Proposamenak hainbat musika-hizkuntza uztartuko ditu: Santiago Quintoren “Rapsodia Hernandiana”, Leonard Bernsteinen “Candide Overture” ezaguna eta Salvador Brotonsen

“7. Sinfonia – Ausiàs March”, poeta valentziarraren bizitzako eta obrako hainbat alderditan inspiratutako lana.

Banda **azaroaren 22an**, igandean, 12:00etan itzuliko da Euskalduna Jauregira, **Xavier Puig Ortiz** zuzendariaren eskutik “Mundu berrietara bidaia” egiteko.

Bidaiaren eta aurkikuntzaren ideiarekin lotura estua duten bi partitura bilduko ditu programak. Batetik, Antonín Dvořáken 9. Sinfonia, “Mundu Berritik”; bestetik, Otto M. Schwarzen “Around the World in 80 Days”, Jules Verneren Munduari bira 80 egunetan eleberri ospetsuan inspiratua. Musikaren bidez bidaiatzeko bi modu dira, eta denboraldi berri honen filosofia agertokira eramateko bi ikuspegi: lurralde berriak esploratzea eta haietara bide desberdinetatik iristea.

ABENDUAK “IBILBIDEAK” DENBORALDIKO LEHEN ZATIA ITXIKO DU

Urteko azken hilabeteak beste bi hitzordu ekarriko ditu. **Abenduaren 4an**, ostiralean, 18:30ean, Banda Juan Crisóstomo de Arriaga Kontserbatorioko Auditoriora itzuliko da, **Iñaki Urkizu** zuzendari dela. Oraingoan, banda-errepertorioan bete-betean murgilduko da programa, honako lan hauekin: Alfred Reeden “First Suite for Band” eta “Festive Overture”, Robert Jagerren “Sinfonia Nobilissima” eta Johan Halvorsen konpositore norvegiarraren “Entry March of the Boyars”. Haize-instrumentuz osatutako taldeen aberastasun tinbrikoa, teknikoa eta adierazkorra agerian uzteko aukera eskainiko du kontzertuak.

“Ibilbideak” denboraldiko lehen zatia **abenduaren 20an**, igandean, 12:00etan, Euskalduna Jauregian amaituko da, udazkeneko programazioko hitzordu berezienetako batekin. **José R. Pascual-Vilaplana** Bandaren Zuzendari Gonbidatu Nagusiak hartuko du batuta Gabon giroko kontzertu honetan. Harekin batera ariko dira **Leioako San Juan Bautista Abesbatza**, **Basilio Astúlez**en zuzendaritzapean, eta **Nerea González** sopranoa.

Kontzertuan Samuel Coleridge-Taylorren “Christmas Overture” eta Albert Guinovarten “Gloria” interpretatuko dira. Banda, abesbatza eta ahots bakarlaria elkartuko dituen proposamenak amaiera berezia emango dio 2026ko musika-ibilbideari.

Gabonetako etenaldiaren ondoren, “Ibilbideak” denboraldiak 2027ko apirilaren 25era arte jarraituko du, zuzendari, bakarlari, errepertorio eta musika-helmuga berriekin, Bilboko Udal Musika Bandaren arte-ibilbideak zabaltzen jarraitzeko.

SARE SOZIALAK:

- **BILBOKO UDALA:** YOUTUBE | FACEBOOK | X | INSTAGRAM
- **BILBAO KULTURA:** YOUTUBE | FACEBOOK | X | INSTAGRAM | TIK TOK
- **BILBAO MUSIKA:** YOUTUBE | FACEBOOK | X | INSTAGRAM

LA BANDA MUNICIPAL DE MÚSICA DE BILBAO EMPRENDE NUEVOS "CAMINOS" EN SU TEMPORADA 2026-2027

- **Bajo el título "Caminos", la Banda Municipal de Música de Bilbao presenta una temporada compuesta por 14 conciertos que se extenderá hasta el 25 de abril de 2027 y que propone recorrer diferentes universos, estilos y épocas musicales de la mano de numerosas batutas invitadas.**

- **La programación llevará a la formación por escenarios como Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbao, el Palacio Euskalduna, el Teatro Arriaga y el Conservatorio Juan Crisóstomo de Arriaga, además de citas como Musika-Música y los XI Encuentros de Dirección Orquestal.**

- **Hasta el 20 de diciembre, la Banda ofrecerá ocho conciertos con propuestas que viajarán de la canción popular a la ópera de Puccini, del repertorio sinfónico a las grandes obras para banda, y culminarán con una cita navideña junto a la Coral San Juan Bautista de Leioa y la soprano Nerea González.**

(Bilbao, 13 de octubre de 2026).- La **Banda Municipal de Música de Bilbao** presenta su **temporada 2026-2027** bajo el título **"Caminos"**, una programación de **14 conciertos** que comenzó el pasado mes de septiembre y que se prolongará **hasta el 25 de abril de 2027**, llevando a la formación por algunos de los principales escenarios culturales de la Villa.

"Todos los caminos conducen a Roma", recuerda el conocido refrán. Una expresión que encierra la idea de que existen múltiples maneras, decisiones e itinerarios para alcanzar un mismo destino. Ese principio inspira "Caminos", el hilo conductor de toda la nueva temporada de la Banda Municipal de Música de Bilbao.

A lo largo de estos meses, la agrupación recorrerá **diferentes caminos musicales de la mano de directoras y directores con distintas sensibilidades y trayectorias**, transitando entre épocas, estilos, autores y formas de entender la música. Una **diversidad** que permitirá descubrir las múltiples posibilidades sonoras y expresivas de una banda de música del siglo XXI.

La temporada reunirá, entre otras batutas, a Iñaki Urkizu, José R. Pascual-Vilaplana, Principal Director invitado, y las directoras y directores invitados Claudia Carballo González, Martín Jorge, Beatriz Fernández Aucejo, Xavier Puig Ortiz, Pedro Bartolomé Arce, Unai Urrecho Zubillaga, Lucía Marín y Manuel Busto Algarín.

La programación se desarrollará hasta abril entre el **Palacio Euskalduna, Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbao, el Teatro Arriaga y el Auditorio del Conservatorio Juan Crisóstomo de Arriaga**. El calendario incluirá asimismo citas destacadas como los XI

Encuentros de Dirección Orquestal, que se celebrarán en enero, y la participación de la Banda en **Musika-Música**, en marzo.

El recorrido llegará finalmente hasta el 25 de abril, fecha del último concierto previsto de la temporada, en el Auditórium del Palacio Euskalduna.

LOS PRIMEROS CAMINOS DE LA TEMPORADA

La temporada comenzó el pasado **11 de septiembre** en el Atrio de las Culturas de Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbao, con **Iñaki Urkizu** al frente de la agrupación. El mismo escenario acogió el **25 de septiembre** la segunda cita del calendario, dirigida por **Claudia Carballo González**, ganadora del Concurso de Dirección 2026 celebrado en el marco de los X Encuentros de Dirección Orquestal de Bilbao Musika.

Tras estas primeras actuaciones, la programación continuará durante el otoño por diferentes escenarios de la ciudad y propondrá al público caminos musicales muy diversos, desde canciones arraigadas en la memoria colectiva hasta la ópera, el gran repertorio sinfónico o algunas de las obras más representativas de la literatura para banda.

El domingo **18 de octubre**, a las 12:00 horas, llegará la primera cita de la temporada en el Auditórium del Palacio Euskalduna. **Iñaki Urkizu** dirigirá a la Banda en un concierto que contará con la participación del **Coro de la Sociedad Coral de Bilbao**.

El programa recorrerá músicas de diferentes procedencias y estilos a través de piezas como “La Paloma”, de Sebastián Iradier; “Xalbadorren heriotzean”, de Xabier Lete; “En mi viejo San Juan”, de Noel Estrada; “Over the Rainbow”, de Harold Arlen, o “La nave del olvido”, de Dino Ramos, entre otras. Un repertorio reconocible que permitirá explorar la capacidad de la música para atravesar fronteras y conectar recuerdos y emociones.

DE PUCCINI A LOS NUEVOS MUNDOS

El siguiente camino conducirá a la Banda hasta el Teatro Arriaga el jueves **29 de octubre**, a las 19:30 horas. En esta ocasión estará dirigida por **Martín Jorge**, director de la Banda Sinfónica de Montevideo.

El concierto propondrá una inmersión en el universo de Giacomo Puccini, uno de los grandes nombres de la historia de la ópera. La Banda interpretará una selección de páginas procedentes de títulos tan conocidos como “La Bohème”, “Turandot” y “Gianni Schicchi”, trasladando al lenguaje y a la riqueza tímbrica de la banda algunas de las melodías más reconocibles del compositor italiano.

El viernes **6 de noviembre**, a las 18:30 horas, el recorrido continuará en el Auditorio del Conservatorio Juan Crisóstomo de Arriaga, donde la directora valenciana **Beatriz Fernández Aucejo** se pondrá al frente de la formación.

La propuesta combinará diferentes lenguajes musicales a través de la “Rapsodia Hernandiana”, de Santiago Quinto; la célebre “Candide Overture”, de Leonard Bernstein,

y la “Sinfonía nº 7 – Ausiàs March”, de Salvador Brotons, inspirada en diferentes facetas de la vida y la obra del poeta valenciano.

La Banda regresará al Palacio Euskalduna el domingo **22 de noviembre**, a las 12:00 horas, para emprender un auténtico “Viaje a nuevos mundos” bajo la dirección de **Xavier Puig Ortiz**.

La propuesta reunirá dos partituras estrechamente vinculadas a la idea del viaje y el descubrimiento. Por un lado, la Sinfonía nº 9 “Del Nuevo Mundo”, de Antonín Dvořák; por otro, “Around the World in 80 Days”, de Otto M. Schwarz, inspirada en la célebre novela La vuelta al mundo en 80 días, de Julio Verne. Dos maneras de viajar a través de la música y de trasladar al escenario la filosofía que vertebra esta nueva temporada: explorar nuevos territorios y llegar a ellos por caminos diferentes.

DICIEMBRE CIERRA EL PRIMER TRAMO DE “CAMINOS”

El último mes del año ofrecerá otras dos citas. El viernes **4 de diciembre**, a las 18:30 horas, la Banda volverá al Auditorio del Conservatorio Juan Crisóstomo de Arriaga con **Iñaki Urkizu** al frente. En esta ocasión, el programa se adentrará de lleno en el repertorio bandístico con obras como “First Suite for Band” y “Festive Overture”, de Alfred Reed; “Sinfonia Nobilissima”, de Robert Jager, y “Entry March of the Boyars”, del compositor noruego Johan Halvorsen. Un concierto que permitirá poner en valor la riqueza tímbrica, técnica y expresiva propia de las formaciones de viento.

Este primer tramo de “Caminos” concluirá el domingo **20 de diciembre**, a las 12:00 horas, en el Palacio Euskalduna, con uno de los encuentros más especiales de la programación de otoño. El Principal Director Invitado de la Banda, **José R. Pascual-Vilaplana**, tomará la batuta en una cita de carácter navideño que contará con la participación de la **Coral San Juan Bautista de Leioa**, dirigida por **Basilio Astúlez**, y la soprano **Nerea González**.

El concierto reunirá la “Christmas Overture”, de Samuel Coleridge-Taylor, y el “Gloria”, de Albert Guinovart, en una propuesta en la que banda, coro y voz solista se unirán para poner el broche al recorrido musical de 2026.

Tras el descanso navideño, “Caminos” continuará avanzando hasta el 25 de abril de 2027, con nuevas batutas, solistas, repertorios y destinos musicales que seguirán ampliando los caminos artísticos de la Banda Municipal de Música de Bilbao.

REDES SOCIALES:

- **BILBOKO UDALA:** YOUTUBE | FACEBOOK | X | INSTAGRAM
- **BILBAO KULTURA:** YOUTUBE | FACEBOOK | X | INSTAGRAM | TIK TOK
- **BILBAO MUSIKA:** YOUTUBE | FACEBOOK | X | INSTAGRAM